

51. Heineken Jazzaldiak aurreikuspen guztiak gainditu ditu

175.000 entzule inguru izan ditu guztira jaialdiak eta giro ezinhobea izan da hirian

51. Heineken Jazzaldiak aurreikuspen guztiak gainditu ditu, bai ikusle kopuruari bai artisten mailari dagokienez. 175.000 entzule inguru izan ditu guztira jaialdiak; horietatik 19.075 ordainpeko kontzertuetan eta gainerakoak doakoako kontzertuetan.

Trinitate Plazako, Kursaal Auditorioko, San Telmo Museoko eta Victoria Eugenia Antzokiko hainbat emanalditan sarrerak agortu dira. Giro ederra izan da egunotan Donostian, bisitariz gainezka zegoen hiria, eta jaialdiaren egitarau oparoak harrera ezinhobea izan du.

Inoiz baino agertoki gehiago izan ditu aurtengo jaialdiak, 20 guztira. Hiriko toki enblematikoenetako bat, Konstituzio plaza, Heineken Jazzaldiaren agertokia izan da estreinakoz. 132 kontzertu izan dira, horietako 84 doakoak. Gainera, hiriko establezimendu ugari jazz emanaldiak izan dituzte euren terrazetan, jazz hiriko doinu bihurtuta.

Ellis Marsalis pianista handiak, ospe handiko musikari familiaren sortzaileak (Wynton, Branford, Delfeayo, Jason), jaso du Donostiako Jazzaldia. Bere seme Branford Marsalisek, hain justu, eskaini du edizio honetako kontzerturik gogoangarrienetako bat, Kurt Elling kantaria lagun zuela. Bere aitari sariaren plaka eman ostean egin zuen, aitaren emanaldia bukatutakoan eta biek elkarrekin balada bat jo zuten une hunkigarriaren ondoren.

Itzela izan zen jaialdiaren hasiera: Gloria Gaynorrek jendetza batu zuen Zurriolako hondartzan. 45.000 ikuslek gogoz gozatu zuten Gaynorren kontzertuaz eta lau telebistek zuzenean eskaini zuten emanaldiaren hasiera informatiboetarako. Jazz Band Ballean askoz emanaldi gehiago izan zen: Dave Douglas, Marc Ribot, Cyrus Chestnut, Buster Williams, Lenny White, Terje Rypdal, Elephant9... Goi mailako emanaldiak denak ere.

Trinitate Plazak Marsalis aita-semeen kontzertu gogoangarriaz gain, lehen lerroko jazz musikarien proposamenak hartu zituen: DeJohnette/Coltrane/Garrison hirukoa, Steve Coleman & Five Elements, Steps Ahead Reunion Tour, Bobo Stenson Trio eta, dena borobiltzeko, Diana Krall.

Punta-puntako jazza izan zen ere Kursaal Auditorioan: urrezko hirukote bat (John Scofield, Brad Mehldau, Mark Guiliana), Jan Garbarek Trilok Gurtu perkusionistak lagunduta eta Christian Scott tronpeta-jotzaile estatubatuarra. Halaber, Ibrahim Maalouf tronpeta-jotzaile frantziar-libanoarrak musika proposamen eztabaidagarria aurkeztu zuen, Kursaal Auditorioa lepo zegoela.

Aretoak maiz bete dira 51. edizio honetan; kontzertu andana agortu da: Trinitate Plazako Marsalis aita-semeak, Steve Coleman eta Diana Krall, Kursaaleko Ibrahim Maalouf eta Mehldau-Scofield-Guiliana, Victoria Eugenia Clubeko Jerry Bergonzi eta San Telmoko eguerditako bost kontzertuak.

Bete-betean asmatu da San Telmo Museoan izan diren eguerdiko kontzertuekin. Sarrera guztiak agortu dituzte bertan izan diren artistek: Workshop de Lyon proposamen bikain eta ausarta, Josemi Carmona & Javier Colina, Jerry Bergonzi Perico Sambeatek lagunduta, Ainara Ortega euskal jazz musikari gorenaz inguratuta eta Mikel Andueza bere disko berri interesgarriarekin.

Konstituzio Plazako agertokia ere arrakastatsua gertatu da oso, bai bertaratutako entzule kopurua bai "Souletik jazzera" lelopeko egitaraua kontuan hartuta.

Azken urteetan bezalaxe, Heineken Agertoki Berdea festarako, gozamenerako eta bizikidetzarako gune bilakatu zen. Gloria Gaynorrekin festa lehertu zen, baina Charles Bradley ez zen atzera geratu eta soul ikuskizun ikaragarria eskaini zuen. Arrakasta handia izan zuten, halaber, Snarky Puppy sutsuek, John Nemeth eta Nick Waterhouse artista bakanek, Grupo Fantasmaren erritmo latinoek eta etengabe gora ari den bertako Rural Zombies taldeak.

Kursaaleko Terrazek arratsaldez nahiz gauetz musika entzuteko primerako aukera eskaini dute. Euskal Herriko nahiz Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian ikasten duten kanpoko musikariz osatutako taldeek euren abileziak agertzeko plaza aparta izan dira.

Frantziako Arfi kolektiboak bi musika proposamen oso ikusgarri aurkeztu ditu eta nabarmendu beharrekoak dira, zalantzarik gabe: Workshop de Lyon eta Marmite Infernale.

51 Heineken® Jazzaldia

51 Heineken Jazzaldiak beste jaialdi bati eman dio aurten aterpe: europar jazz talentu berriak deskubritzea xede duen 12 Points-i. Donostia 2016 Kultur hiriburuaren Elkarrizketak lerroarekin elkarlanean antolatutako jaialdi ibiltari hau Dublinalin egiten da bi urtero eta gainerako edizioak beste europar hiriburutan ospatzen dira. 10. edizioa Donostian egiteak zentzu guztia zuen, kultur hiriburutzaren urtean. Hamabi europar hiritako hamabi talderen kontzertuak izan dira 12 Points jaialdiaren muina eta jazz adituen parte-hartzea izan duen Jazz Futures mintegiak eta zabaldu berri den Tabakalerako Kutxa Kultur Kluban egin diren jam session gautiarrek biribildu dute egitaraua.